



# F R I S O A

# X A B I E R

Tabakalera: 2022ko azaroak 17 - 2023ko urtarrilak 8

# S A L A B E

Oteiza Museoa: 2023ko apirilak 14 - irailak 10

# R R I A



Jorge Oteiza. *Aita Donostiaren omenez*, 1959  
Hainbat harri motatan egindako tallia. 140 x 900 cm  
Banco Sabadell Arte Bilduma, Donostia  
Jorge Oteiza © Pilar Oteiza, 2022

## Pilota jokora itzultzea

Argi dago brikolajeari eskainitako telebista-saioen arrakastaren gakoek edo sarean DIY motako tutorialak ugaritzeak tresnek gizakiengan sortzen duten lilurari erantzuten diotela. Edozein tailerretatik igarotzean, oso zaila da bertako tramankuluen eta tresnen panelak eragiten duen magnetismoaren aurrean amore ez ematea. Erliebezko eskultura gisa, gauden barrutiko hormaren buru izan ohi den erreminten panel horretatik begirada saihestea, alegia (edo objekturik ezean, haien siluetari leialki jarraituz margotatutako ingeradena).

Ez da zaila asmatzea gure pertzepzio-sistemaren jarrera ia espontaneo honen atzean dauden arrazoiak. Edozein tresnaren ezaugarri nagusia soluzio material baten eramaile izatea da. Horrek, mehatxatzen gaituzten arazoaren konplexutasuna dela eta, arintze-sentsazio erosoa eragin ohi du. Baina, gainera, mundu zentzugabe eta disfuntzional batean, tresnak adierazten duena zera da, gure borondatea eragile aktiboa dela bizitza pausoz pauso konpontzeko erabiltzen diren "moldaketa" horietan.

Xabier Salaberriaren proiektu honen abiapuntua Jorge Oteiza eskultoreak (1908-2003) Donostiako Banco Guipuzcoanoren (egungo Sabadell Guipuzcoano) eraikin korporatiborako egindako frisoa da, *Homenaje al Padre Donosti, Suite con el paisaje de Agiña* izenekoa. Obra hori artistak eta Luis Vallet arkitektoak (1894-1982) jaso zuten enkarguaren testuinguruan sortu zen, 1956an Agiñako mendilerroan José Gonzalo Zulaika y Arregi, Aita Donostia, konpositore eta musikologoari monumentu bat egiteko. Honako hau irakur dezakegu finantza-erakunde publikoak bere webgunean argitaratuta duen laburpenean: "Oteizak estelan erabiltzen dituen marmol berberak erabiltzen ditu, baina monolito baten ordez, eskultura friso panoramiko batean zabaltzen du, eraikinaren arkitekturara egokituz. Suite izena ez da ustekabekoa, musika gogorarazten baitu (...). Horrela, frisoa pentagrama bat bezalakoa da, eta bertatik igarotzen da, luzeka, melodia".

Salaberriaren lanean, arte plastikoaren arloan modernitateak proposatu zituen berrikuntza formalaren berezko elementu abstraktuen ordez bolumen desberdinak baliatzen dira, eta horiek, konposizioaren norabidea tradizio horretara zuzentzen badute ere, lehenik eta behin, lanabesen eta tresnen mundu oparoari lotutako materialtasuna iradokitzen dute. Baina tresna horiek abstrakzioaren mugetaraino murriztean eta munduan esku hartzeko gaitasuna desaktibatzean, artistak hainbat planotan funtzionatzen duen aparatu desmitifikatzaile bat eratzen du.

Hasteko, *Frisoa* (2022) lanak duela gutxi arte ia aipatu ez den zaharkitze mota bat nabarmentzen du. Ez bakarrik denbora errekorrean hiltzeko milimetrikoki kalkulatutako merkantzia, baizik eta prozesu horretan bertan euren aplikazioak mamu, orain sorbaldak gainetik begiratzen dieten sistema espektral bihurtu direla ikusi eta sentitzen duten erabiltzaileena. Eskuaren eta artefaktuaren arteko distantzia, finitua eta garai batean gizalegez ezagut zitezkeen eskalakoa, hainbat norabidetan ugaltzen hasi zen, -prozesu konputazionaleri esker- eta, horrela, giza proportzioari ihes egiten. Prozesu horren ondorioz, era guztietako helburuak eta asmo sistemikoak sartu ziren subjektu indibidualen nahitasunean.

Aldaketa horiei dagokienez, egile batzuek giza sentsibilitateari historikoki forma eman dioten hiru artikulazio handien artean gertatu den kolapsoaz ohartarazi dute: gorputzaren ordena eta haren erregulazio psiko-fisiologikoa, tresnak gorputza hedatzen duten organo artifizial gisa, eta, azkenik, organo biologiko zein artifizialen akoplamenduaren ondorioz sortzen diren gizarte-antolamenduak. Bestela esanda, aurrerapen teknikoarekiko lilura hipnotikoak mirari bat eragingo zukeen, mundua osatzen duten gainerako harremanetatik askatzea. Horregatik, atentzioa ematen du beti eta harridura sortu ere antzinako Grezian lurruna asmatu eta greziarrek jostailuzko itsasontziak egiteko bakarrik erabiltzea erabaki izanak. Eta hain zuzen, teknologiarekiko arazoak puntu honetan datza: bere existentzia geldiezin botere handi eta subirano baten ondorio dela dirudi, munduan gertatzen diren gainerako harremanetatik datorren kutsaduratik babestu behar dugun zuzenbidea; eta, beraz, normala da zentzugabekeriatzat hartzea egunen batean borondate kolektibo batek edo giza gutizia batek makurrarazi izanaren ideia.

Gainerakoan, gogoratu behar da arlo organikoari, teknikoari eta gizarte-egituraketari buruzko hiru esfera horiek historian hainbat eta hainbat haustura eta desadostasun eragin dituztela; izan ere, haien arteko jokoan beti egon delako elkar ezagutzeko eta identifikatzeko nolabaiteko ezintasuna. Azken finean, Artearen Historia gisa aztertzen duguna, neurri handi batean, hizkuntza bere azken ondorioetaraino zehaztu behar duen sistema baten eta munduaren errealitate materialaren arteko desadostasunaren emaitza da, zeinak, bere dinamikan, aurreikuspen eta kalkulu funtzionalerako edozein itxaropen gainditzen baitu.


Gaur egun egitura sozial eta teknologikoen arteko gainjartzea eta erabateko sinkronizazioa alaitasunez onartzen dela dirudi, eta ahaztu egiten dira bi esfera horiek bereizteko ezintasun praktikokoak dakartzan ondorio tamalgarriak. Lehenik eta behin, berekin dakarren biztanleriaren eta gizabanakoen portaera-estandarizazioa. Agian hori da, eta ez besterik, azken belaundiko tresna eta aplikazio guztiek pertsonalizatzen eta *tuningean* hainbeste indar jartzearen arrazoiak. Argi dagoenez, garapen teknologiko humanizatu eta berezituaren moztarria disimulua baino ez da, aurpegirik ez duen eta objektuen eta erabiltzaileen arteko hurbiltasun zehatza bertan behera utzi duen kultura monotekniko baten erretorika hutsa; izaki bizidunen eta aparatuen arteko aurrez aurreko harreman honen ordez, debozio bitxi bat proposatzen duen narrazio honetan, objektuak eta gorputzak erabat baztergarriak dira giza esperientzia egituratu eta pentsatzeko orduan.

Tresnak eta objektu teknikoak erabilpenaren lurralde amankomunera itzultzea, teknofobiaren eta teknofiliaren arteko dikotomia gaindituz, lehen mailako zeregin politiko bihurtu da. Zeregin horretan, jolasaren dimentsioak garrantzi ahaztua berreskuratzen du askotan. Jokoak, gutziz nahitaezkoak diren arau batzuei lotutako ekintza libre gisa, merkatuaren zarata gorgarririk kanpoko ezagutza espazio bat markatzeko aukera ematen du. Han *gizakiaren* balentriak bakarrik entzuten dira, eta ezinezkoa da gauzez arduratzea.

Oier Etxeberria



*Frisoa*, 2022  
Altzairua, aluminioa eta egurra  
470 x 130 x 14 cm  
Banco Sabadell / Artingenium-ek ekoiztua  
Argazkia: Mikel Eskauriaza  
Erakusketa Tabakalera eta Oteiza Museoen



*I/K Frisoa seriea*, 2011/2022  
Bideoa 3' 15"  
Kameraria: Marion Cruza  
Banco Sabadell / Artingenium-ek ekoiztua  
Erakusketa Oteiza Museoen




*Izenbururik gabe (pin pon)*, 2022  
Poliestirenoa, metala eta egurra  
274 x 162,5 x 91,25 cm  
Banco Sabadell / Artingenium-ek ekoiztua  
Erakusketa Tabakalera



*Agíña (Frisoa seriea)*, 2021  
5 argazki  
100 x 70 cm bakoitza  
Producción: Banco Sabadell / Artingenium  
Exposición Museo Oteiza



*Izenbururik gabe (Frisoa seriea)*, 2022  
Altzairua eta egurra  
170 x 50 x 25 cm  
Erakusketa Tabakalera eta Oteiza Museoen



*Izenbururik gabe (Altzua)*, 2022  
2 argazki  
100 x 70 cm bakoitza  
Banco Sabadell / Artingenium-ek ekoiztua  
Erakusketa Oteiza Museoen

Jorge Oteizaren *Aita Donostiaren omenez* frisorara bisita. Banco Sabadell Guipuzcoano (Askatasunaren Hiribidea 21) - Donostia.

2022ko abenduaren 3an, larunbata, 12:00etan

Xabier Salaberriak gidatuta, Banco Sabadell Guipuzcoanora bisita, Jorge Oteiza eskultoreak 1959. urtean egindako frisoa ezagutzeko. Obra hau Oteizak eta Luis Vallet arkitektoak 1956an Agiñako mendian José Gonzalo Zulaika y Arregi, *Aita Donostia*, musikagile eta musikologoari monumentu bat sortzeko egindako enkarguaren testuinguruan egin zen. Kasu honetan, Oteizak hilarriaren marmol berberak erabiltzen ditu eraikinaren arkitekturara egokitutako friso panoramiko bati forma emateko.

[+info: tabakalera.eus](http://info.tabakalera.eus)

Agiñako *Aita Donostiaren omenez* monumentura bisita

2023ko maiatzaren 20an, larunbata, 12:00etan

Jorge Oteizak eta Luis Valletek 1959an sortu zuten Aita Donostiaren omenez egindako monumentua Agiña mendian. Jorge Oteizaren eskultura-hilarri batez eta Luis Valletek diseinatutako kaperaz osatutako multzoa da, José Gonzalo Zulaika y Arregi (1886-1956), Aita Donostia, musikariaren omenez egina. Esku-hartzeak Oteizaren esperimantazio eskultorikoaren amaiera-faseko elementu erabakigarriak biltzen ditu, eta paisaiaren esku-hartze artistikoa aitzindaria den proiektua da. Bisita honetan monumentua eta bere ingurune naturala bisitatuko dira, historiaurreko harrespila eta tumulu ugari osatuta dagoena.

[+info: museooteiza.org](http://info.museooteiza.org)

